

**ARETXABALETAKO UDALAREN ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA PROGRAMAREN ADJUDIKAZIOAN  
AGINDU BEHAR DUTEN EKONOMIA ETA ADMINISTRAZIOKO BALDINTZA BEREZIEKIN PLEGUA**

**BALDINTZAK**

**1.- ARAUBIDE JURIDIKOA:**

1.- Kontratu hau, zerbitzu kontratutzat hartzen dena, Administrazio Publikoen Kontratazioari komunak zaizkion printzipioek eta edozein kasutan ere, administrazio kontratazioari buruzko Europar Erkidegoen Zuzenbideak, aginduko dute, Sektore Publikoaren kontratuen, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 1o artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Aurreko lerrokadan ezarritakoarekin bat etorritik, kontratua honakoek aginduko dute:

1.- Administrazioko klausula partikular hauek eta baldintza teknikoaren pleguak.

2.- Legezko eta arauzko xedapenetan jasotako kontratazioari buruzko arauak, lizitazioa eta kontratua egitean, eta bion garapenean zehar indarrean dauden Tokiko Araubide eta Kontratuek.

- Zehazki honako hauek aplikatu behar dira: Sektore publikoaren kontratuen azaroaren 14ko Legegintzaldiko Errege Dekretua, maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, zeinaren bidez urriaren 30eko Sektore Publikoko kontratuen 30/2007 Legea garatzen duen, eta baita ere Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorra onesten duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua.

3.- Gizarte zerbitzuen arloan eginkizunak erabakitzekeko uztailaren 30eko 155/2001 Dekretuak.

4.- Administrazio Zuzenbidearen arauak.

2.- Zuzenbide Pribatuko arauak zuzenbide osagarritzat aplikatuko dira kontratuaren interpretazioak, ondorioek, betearazpenak eta suntsiarazpenak ekar ditzaketan auziak ebazteko, betiere aurreko lerrokadan aipatutako xedapenek deduzitu ezin badituzte; edozelan ere, Zuzenbide Pribatuko arauen aplikazioa Administrazioaren eskubideak ahaztuta egiterik ez da egongo.

CPV nomenklaturaren kodifikazioa: 85312000-9

Gardentasuna eta bere kontratu-jarduerari buruzko informazioa jendearen eskura egotea ziurtatu ahal izateko, eta beste publizitate bitarteko batzuk erabiltzearen kaltetan gabe, Udal honek Kontratugilearen Perfila dauka, zeinetara, ondorengo web orrian arautzen diren zehaztapenen arabera sartu ahal izango den: [www.aretxabaleta.eus](http://www.aretxabaleta.eus).

**2.- KONTRATUAREN XEDEA:**

Prozedura ireki bidez esleitu den kontratuaren xede zuzena Etxez Etxeko Laguntza Programa egitea da, Baldintza Teknikoen Pleguan ezarritako aukerabidezko baldintza eta aurrekontuarekin bat etorritik. Hala ere, lizitatuak kontratuaren xede gauzatzeko egokiago irizten dieten bestelako soluzio teknikoak aurkeztu ahal izango dituzte, horrela, Administrazioak horiek onetsiz gero, kontraesanetan egon daitezkeen gauzetan, espedientean hasiera bateko finkatutako aukerabidezko baldintzak aldatu egingo dituzte.

Enpresa esleipenduna enplegu emaile denez, plegu honen eranskinean azaltzen diren ezaugarriak dituzten langileen lan kontratuetan subrogatu beharko da

**3.- KONTRATUAREN IRAUPENA:**

Programaren xede diren zerbitzuak eskaintzen 2017ko urtarrilaren 1ean hasiko dira eta 2021eko abenduaren 31n bukatuko dira. Hala ere, eskudun organoaren erabaki adieraziaren bidez, kontratua luzatu ahal izango dute urteko aldiez, gehienez ere 2 urte, betiere gutxienez hiru hilabeteko aurretiaz salaketa aurkeztu ez badute.

Edozelan ere, eta Udalak egoki jotzen badu, adjudikaziodunak zerbitzua eskaintzen jarraitu behar du bere garaian adjudikatzen duten kontratu berria hasi arte, betiere gehienez sei hilabeteko epe batez kontratua bukatzeko ezarritako egunetik aurrera.

#### **4.- AURREKONTUA-LIZITAZIO MOTA:**

Hurrengo lizitazio mota ezarri dute, lizitatuzaileek berau beherantz hobetu ahal izango dute, kopuru zehatza eta mugatua kontsignatzen dutela:

- Arreta emateko ordua: 16,19euro gehi BEZri dagokion 3,40 euro

Lizitatuzaileek egiten dituzten proposamenetan adierazitako lizitazio motan, eta kontrata adjudikatzen duten kopuru zehatz eta mugatuan, beti, ondorio guztietarako, kontrataren prezioa eta kontzeptu guztiak kargatzen dituzten era guztietako zergei dagozkien kuotak eta, bereziki, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, berau araupetzen duen araudiaren arabera, **barne daudela ulertuko da**.

Bakarrik Informazio gisa, jakinarazten da iaz 18.384 ordu eskaini zirela.

Kontratuaren balio zenbatetsia 1.785.821,76 euro eta BEZri dagokion 375.022,57 eurokoa da.

#### **5.- FINANTZAKETA:**

Aurrekontuetan, kontratua betetzetik Udalarari sortuko zaizkion betebeharrak betetzeko adinako kreditua dago.

Era berean, aurrekontu gaitan ahalmena duen organoak, tartean dauden ekitaldien aurrekontuetan dagozkion kerdituak gordetzeko konpromisoa hartzen du.

#### **6.- ORDAINTZEKO MODUA:**

Prezioa hileko ordainketatan ordainduko dute, aldeztatik kontratistak benetan egindako lanei dagozkien fakturak aurkeztuta, eskuduna den Udal Teknikariak ontzat eman beharko dituenak, eta arloan indarrean dauden arauak beteta. Udal Kontu-hartzailetzak kontratistari edozein kopuru ordaintzeari uko egin beharko dio, behin betiko fidantza aurkeztu dutela egiaztatuta bitartean.

#### **7.- KONTRATISTAREN KAUDIMEN EKONOMIKOA ETA FINANTZARIOA, ETA KAUDIMEN TEKNIKOA EDO PROFESIONALA**

Lizitatuzaileek, ondorengo eran ziurtatu beharko dute finantza eta ekonomia kaudimena eta kaudimen tekniko edo profesionala:

- Kaudimen ekonomikoa eta finantziarioa:

Negozioen urteko bolumena. Bolumen hau, igarotako azken hiru urteotako negozio bolumen handieneko urteari dagokionez, kontratuaren batez besteko urteko balioa baino bat eta erdi aldiz handiagoa izan beharko da.

Negozioen urteko bolumena onartutako eta Merkataritza Erregistroan gordailutatuko urteko kontuen bidez egiaztatuko da, baldin eta enpresaria Erregistro horretan inskribatuta badago. Hala izan ezean, enpresariak inskribatuta egon behar dueneko erregistro ofizialean gordailutatuko kontuak aurkeztuko dira. Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden banakako enpresarietako urteko negozio bolumena Merkataritza Erregistroak legezkatutako inbentarioen edo urteko kontuen bidez egiaztatuko dute.

- Kaudimen tekniko edo profesionala:
- Azken bost urtetan eskainitako zerbitzu nagusien edo egindako lan nagusien zerrenda, kontratu honen xedearekin bat datozenak. Bestalde, lan horiek exekuzio onari buruzko egiaztagirien bidez abalatu dira.

## **8.- PROPOSAMENAK ETA ADMINISTRAZIO AGIRIAK AURKEZTEA.**

Eskaintzak Udaletxean aurkeztuko dira (Otalora kalea 1) bulego orduetan, iragarkia Europako Batasuneko Aldizkari Ofizialera bidaltzen den egunetik hasi eta 40 eguneko epean.

Proposamenak, postaz, telefaxeaz, edo bitarteko elektronikoak, informatikoak eta telematikoak erabiliz aurkeztu ahal izango dira, Herri Administrazioen Erregimen Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Komunaren, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarrita dauden lekuetako edozeinetan.

Eskaintzak postaz bidaltzen direnean enpresariak, justifikatu egin beharko du Postan bidalketa noiz egin duen, eta kontratazio organoari egun berean, eskaintza bidalia izan dela jakinarazi, telex, fax edo telegrama bitartez, bertan, espedientearen zenbakia, kontratuaren helburuaren titulu osoa eta hautagaiaren izena adieraziz.

Adierazitako telefax, fax edo telegrama hartu izanaren frogagiria, udal idazkariak egingo duen eginbidearen bitartez egingo da. Bi betekizun horiek betetzen ez badira, proposamena ez da onartuko, kontratazio organoak, lizitazio iragarkian adierazitako epea baino beranduago, hau da, jarritako eguna eta ordua baino beranduago jasotzen badu. Edozein eratar, jarritako eguna pasa eta hamar egunera dokumentazioa oraindik ere jaso gabe badago, ez da onartua izango.

Erabili ahal diren bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoek, gainera, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartzen duen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren Hamaseigarren Xedapen Gehigarrian ezarritako betekizunak bete beharko dituzte.

Lizitatuak bakoitzak ezingo du proposamen bat baino gehiago aurkeztu. Era berean ezingo du, beste batzuekin batera Aldi Baterako Enpresa Batasunik sortu, baldin eta bakarka egin badu, ez eta Aldi Baterako bat baino Enpresa gehiagotan egon. Arau hauek hausten dituzten proposamenik ez da onartuko.

Proposamena aurkezteak, Plegu honetako klausulak bete betean eta baldintzarik gabe onartzea dakarkio enpresariari.

Lizitazioan parte hartzeko proposamenak, hiru kartazal itxietan aurkeztuko dira. Kartazal horiek lizitatuak sinatuta egongo dira eta bertan egoitza adierazi beharko da jakinarazpenak egin ahal izateko; baita kartazalaren izenburua eta ondorengo lema ere: "Etxez etxeko laguntza programaren kontratazioan parte hartzeko proposamena". Kartazalen izena ondorengo da:

- **"A" Kartazala: Administrazio-Agiria**
- **"B" Kartazala: Balio Judiziopeko Ponderazioa behar duen dokumentazioa, memoria teknikoa.**
- **"C" Kartazala: Proposamen Ekonomikoa.**

Kartazal bakoitzean aurkeztu beharreko agiriak jatorrizkoak izan beharko dira, edo kopia kautotzak, indarrean dagoen Legeriarekin bat etorritik.

Kartazal bakoitzaren barruan ondorengo agiriak aurkeztu beharko dira eta beren zerrenda zenbakitua:

## A kartazala:

### ADMINISTRAZIO-AGIRIA

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011ko 146 Errege Dekretu Legegilearen 146. artikuluan 4. atalak ahalbidetzen duen neurrian, lizitatuak 1. atalean ezarritako dokumentazio aurkeztu ordez, aitorten arduratsua aurkeztu beharko du esanez Administrazioarekin kontratatzeke lege ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela. Kasu horretan Kontratuaren esleipendun izateko proposamena jasotzen duen lizitatuak, eskatutako dokumentazioa duela eta baliozkoa dela egiaztatu beharko du kontratazio organoaren aurrean kontratua esleitu aurretik. Aitorten arduratsua ondorengo eredura lotutakoa:

- “.....andreak/jaunak, nire izenean edo ..... enpresaren legezko ordezkari izanik, NIRE ARDURAPEAN AITORTZEN DUT:

- 1º. Administrazioarekin kontratatzeke lege ezarritako baldintza guztiak betetzen ditudala Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011ko 146 Errege Dekretu Legegileak eskatzen duenaren arabera, bertan aurreikusitako termino eta baldintzetan.

- 2º. 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartzen duen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 60. artikuluan kontratatzeke zehaztutako debeku eta bateraezintasunik ez duela (ez berak ezta ordezkatzeko duen enpresak eta bere administrari edo ordezkariak ere).

- 3º. Indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela, eta Aretxabaletako Udalarekin, exekuzio aldi ordaindu beharreko tributuzko zorrik ez duela, baimena emanaz Administrazio kontratugileari, esleipendun gertatzen bada informazio hori eskuratu ahal izateko, hitzarmenak egin dituen beste Administrazio Publiko batzuen datu baseen bitartez.

- Ekainaren 3/2011ko Erret Dekretuak, Administrazio Publikoetako Kontratu Legearen Testu Bateratua onartzen duenak, 146. artikuluan, 1. atalean, eskatutako dokumentazioa duela eta baliozkoa dela egiaztatzeke konpromisoa hartzen du kontratazio organoaren aurrean kontratua esleitu aurretik.

- Lekua, data eta lizitatuaren sinadura.”

Hainbat enpresarik lehiaketara jotzen badute aldi baterako enpresa-batasuna eratuz, taldekide bakoitzak aurreko paragrafoan esandako aitorten arduratsua aurkeztu beharko du eta gainera haietako bakoitzaren legezko ordezkariak sinatutako dokumentu bat non batasuna eratuko dutenen izena eta batasun horretan aurkezteke zirkunstantziak eta bakoitzaren parte-hartzea adierazi beharko dituzten, esleipendun gertatuz gero aldi baterako enpresa-batasuna formalki eratzeke konpromisoa eta hasten denetik amaitzen dena arte kontratutik ondoriozta litezkeen betebeharrak betetzeke eta eskubideak gauzatzeko nahikoa ahalmen izango dituen batasunaren ordezkari edo ahaldu bakarraren izendapena.

## B KARTAZALA:

Balio judizioen bidez ponderatuko diren esleipen irizpideei buruzko dokumentazioa, eta zehazki proiektuaren memoria teknikoak jasoko da hemen 16. klausulan jasotzen diren baldinzen arabera.

Honelako azpiztitulua izango du: “MEMORIA” eta bere barruan honakoa sartuko da.

- Honako hau jasotzen duen memoria teknikoak:

- Zerbitzura esleitutako langileen izen-zerrenda, bere prestakuntza agirien bidez egiaztatuta.
- Laguntzako bere jarduera garatzeko dokumentu euskarriztat erabiltzen dituen erregistroen kopia.
- Enpresan prozedurak egiteke ezarritako diagramak.

- Pleguan aurreikusitakoari kalte egin gabe eta kostu erantsirik gabe, Etxez Etxeko Laguntzara hobekuntzak ekar ditzaketen iradokizunak.

Memoria, gehienez, 30 orrikoa izango da, letra tamaina 12 eta lerroen arteko tartea 1,5.

Proposamenaren ereduaren arabera idatzita ez dauden eskaintzak ez dira inolaz ere onartuko.

Kartazal honetan ez dira sartuko ez proposamen ekonomikoa ezta automatikoki zenbatu daitekeen esleipen irizpideei dagokien beste edozein datu ere; horiek "C" kartazelan aurkeztuko dira.

Datu horietako edozein "B" kartazalean sartzeak, enpresa lizitzailea prozedura honetatik kanporatzea ekarriko du.

### **C KARTAZALA:**

Honelako azpitulua izango da: "ESKAINZA EKONOMIKOA" eta bere barruan honakoa sartuko da:

- Plegu honen bukaeran jasotako Proposamen Ereduaren arabera (I. ERANSKINA) idatzitako eskaintza.

### **9.- UDALAREN AHALMENAK:**

Udalak hurrengo ahalmen horiek beretzat gordetzen ditu Etxez Etxeko Laguntzaren prestazioa kontrolatzerakoan:

- Interes publikoak Etxez Etxeko Laguntzaren prestazioan aholkatzen dituen aldaketak, iritziaren arabera, agintzea. Aldaketa horiek prestazioen kalitate, kopuru, denbora edo lekuari buruzkoak izanik, bai eta erabiltzaileak ordaindu beharreko prezioak eta ordaintzeko modua aldatzea ere.
- Kontratua suntsiaraz dezaten erabakitzea eta horren ondorioak zehaztea.
- Kudeaketa fiskalizatzea, Etxez Etxeko Laguntzaren prestazioa eta kontratu honen xedearikin lotutako dokumentazioa ikuskatuta, eta beharrezko prestazioa mantendu edo berrezartzeko aginduak ematea.
- Enpresa kontratistari egindako arau-hausteagatik beharrezkoak diren zuzenketak eginaraztea.
- Kontratua interpretatzea.
- Berau betetzean sortzen diren zalantzak argitzea.
- Etxez Etxeko Laguntzaren programaren prestazioa bere egitea hurrengo kasu hauetan:
  - Edozein kausagatik, langileen greba barne, bere prestazioa geldiarazi edo guztiz etetea.
  - Greba gertatuz gero ezarri dituzten gutxieneko zerbitzuak ez betetzea.
  - Greba egoeraren iraupen mugagabea, Etxez Etxeko Laguntzaren prestazioaren nahasmendu larria, eta beste bide batzuetatik konpondu ezin daitekeena, gertatzen denean.

Edozein gauzagatik, langileen greba, bai eta greba gertatuz gero ezarri dituzten gutxieneko zerbitzuak ez betetzea ere, barne, bere prestazioa geldiarazi edo guztiz eteten denean, Udalak programaren prestazioa bere gain hartzea edo kontratua suntsiaraztea erabaki ahal izango du, eta kontratistak, kontratua suntsituz gero, kalte-galeren ordaina eskatzeko eskubiderik ez du izango.

- Indarreko legerian ezartzen duten beste edozein.

### **10.- ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK:**

1.- Plegu honetan jasotakoez eta ordezkoko arauak aplikatzearen ondorioz sortzen direnez gain, hurrengo hauek ere kontratistaren betebeharrak dira:

a) Lanak kontratuan finkatutako denboran eta tokian, eta agindu teknikoekin eta administrazio baldintzekin bat etorri eta Administrazioak berau interpretatzeko kontratistari emango lizkiokeen jarraibideen arabera, egitea. Ildo beretik, kontratu osoa edo bere zatia lagatzerik, edo azpikontratazioa egiterik, ez du izango Administrazioak baimena eman ezean, eta betiere indarreko araudiarekin bat etorri.

b) Behin betiko fidantza adierazitako epean emango du, eta egokia denean berau osatu ere egin beharko du.

c) Kontrata adjudikatzeko ekitaldian adierazitako epearen barruan formalizatzea.

d) Hamabost eguneko epearen barruan, sor zitezkeen ezintasunak edo bateraezintasunak jakinaraztea.

e) Lizitazio eta kontratuaren ondorioz sortzen diren gastu guztiak ordaintzea, besteak beste, azalpen moduan, Aldizkari Ofizialetan eta prentsan argitaratutako iragarkiek, fidantzen eraketek eta, bidezkoa izanez gero, kontrata eskritura publikoan, bere kopiak barne, formalizatzeak sortzen dituztenak.

f) Lan-arloko legerian, Gizarte Segurantzari, arlora aplikatu beharreko Hitzarmen Kolektiboetan, eta 31/1995 Legean (Laneko Arriskueta Aurreneurriak Hartzeko Legea) eta berau garatzen duten Errege Dekretuetan, bai eta zerga alorrean ere, indarrean dauden xedapen guztiak betetzea, horrela bada, Udal Korporazioa eta lanen Zuzendaritza horiek ez betetzean sor litekeen edozein erantzukizunetik kanpo geldituko lirakeke, bestaldetik, kontratistak kontratatutako langileak Udalaren plantillako langile gisa ez dira inolaz ere finkatuko.

g) Bere langileekin dituzten laneko harremanak Hitzarmen Kolektiboaren arabera gauzatzea, Plegu hauetako II eranskinean jasotzen den bezala.

h) Greba egonez gero, denboran edo hiru hilabete baino gehiagoko aldi batez mugagabe luzatzen baldin bada, kontratista eta bere langileak arbitrajari nahitaez men egitea.

i) Garatzen dituen lanen eta egindako prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren gaineko erantzukizuna hartzea, bai eta kontrata burutzerakoan gertatzen diren omisio, hutsegite, metodo desegoki edo ondorio okerrak direla-eta Administrazioari edo hirugarrenei sortzen zaizkien ondorioen gaineko ardura ere.

j) Lanen ondorioz Udalari eta hirugarrenei sortzen zaizkien kalte guztiengatik, baita bere betebeharrak betetzean sortutakoengatik ere, kalte-ordaina ematea.

2.- Administrazioak ezarritako kantitateak ordaindu beharko ditu, seigarren baldintzan ezarritakoaren arabera.

Kontratuaren gaineko ikuskapena egitea Udalaren esku egongo da bere langile teknikoaren bidez, hauek beharrezko jarraibideak emango dituzte berau ondo eta eginkortasunez egin dezaten.

#### 11.- **BERMEAK:**

1.- Esleipendunak esleipen prezioaren %5eko behin-betiko bermea ordaindu beharko du Udaletxeko Kutxan.

Berau aurkezteko epea 10 egunekoa da, adjudikaziodunari horren berri eman zaionetik aurrera zenbatuta, eta bermearen aldia bukatu eta adjudikaziodunak kontratuaren betebeharrak guztiak bete ondoren itzuliko dute.

2.- Garantiak indarreko legeriak baimendutako edozein bidez eman ahal izango dituzte.

#### 12.- **LIZITAZIOAREN PUBLIZITATEA:**

Lehiaketa honen iragarkia Europako Batasuneko Aldizkari Ofizialean, Estatuko Aldizkari Ofizialean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Aretxabaletako Udalaren kontratugilearen profilaan, [www.aretxabaleta.eus](http://www.aretxabaleta.eus) argitaratuko da.

### **13.- KONTRATAZIO MAHAIA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA:**

Kontratazio mahaiaren osaketa ondorengo izango da:

Presidentea:	Alkatea
Bokalak:	Gizarte Zerbitzuetako Teknikaria Gizarte Zerbitzuetako zinegotzia Idazkaria Kontuhartzailea
Idazkaria:	Gizarte Zerbitzuetako Teknikaria.

### **14.- PROPOSAMENAK IREKITZEA:**

Kontratazio Mahaia proposamenak aurkezteko epea bukatzen den egunaren osteko astearen lehen egun balioduneko eguerdiko 12:00etan, "A" kartazala irekiko du eta bertan dagoen administrazio dokumentazioa kalifikatuko du.

Beharrezkoa balitz, Mahaia, hiru eguneko epea emango du, gehienez ere, lizitatuak aurkeztutako agirietan konpon daitezkeen antzemandako akats edo hutsegiteak zuzentzeko. Ondoren "B" kartazalak zabaldu eta aztertuko dira.

Proposamenak irakurri ondoren, eta haiek Pleguetan ezarritako irizpideak kontuan izanik baloratzeko, beharrezko irizpide txosten guztiak eskatu ahal izango ditu Mahaia.

### **15.- DOKUMENTAZIOA ESKATZEA.**

Kontratazio Mahaia berriro elkartu ondoren, balio judiziopeko irizpideei atxikitako ponderazioaren berri emango da. Jarraian "C" kartazala irekiko da. Udalak bere web orrian argitaratuko du, kartazal hori irekiko den eguna eta ordua.

Balio Judiziopeko Ponderazioa behar duten irizpideen balorazioa ("B" kartazala) eta ponderazio automatikoa duten irizpideena ikusirik ("C" kartazala ) Kontratazio Mahaia kontratuaren esleipenduna proposatuko du.

Kontratazio organoak, ekonomikoki eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatuari eskatuko dio, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasitako hamar eguneko epean, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak kibatuta dituela egiaztatuko duten frogagiriak aurkez ditzala, edo kontratazio organoari baimena eman diezaiola, eskatutakoa egiaztatuko duten agiriak zuzenean eskatzeko. Baita Kontratu gauzatzeko erabiliko dituen bitartekoak egiazki dituela egiaztatuko duten frogagiriak , beti ere azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartzen duen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 64.2 artikularekin bat etorritik eta egoki den behin betiko bermea eratu izanarenak.

### **16.- LEHIAKETA ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK:**

Lehiaketa hurrengo irizpideen arabera ebatziko da:

<b>1.-ETXEZ</b>	<b>ETXEKO</b>	<b>LAGUNTZAKO</b>	<b>PRESTAZIO</b>	<b>PROIEKTUA</b>
.....50 puntu.				

- Zuzeneko Arreta: arretako sistema, gorabeherak.
- Zerbitzuaren antolaketa: Prozedurak, lurraldeko antolaketa, komunikazio-sistemak.
- Jarduteko protokoloak edota Prozeduren Eskuliburua, egunero aplikatzekoak.
- Informazioa igortzeko barneko tresnak.
- Erakundearen organigrama aurreikusia.
- Langileen antolaketa funtzionala.

- Figura profesionalak, eginkizunak.
- Erakundearen sistema informatikoa.
- Erabiltzaileari eskatzen dioten arreta ebaluatzeko programa (ebaluatzeko tresnak, maiztasuna eta arduraduna dituena).
- Eskarmentua Etxez Etxeko Laguntzaren lanetan.
- Eskarmentua hirugarren adinarekin lotutako lanetan (pisuak, egoitzak, eguneko zentroak eta bestelakoak).
- Bestelakoak.

## **2.-LANGILEAK KUDEATZEKO PROIEKTUA.....30 puntu.**

- Laneko baldintzak.
- Prestakuntza Plana.
- Langileak hautatzeko programak.
- Pizgarrien sistema.
- Aurreikusitako absentismoa.
- Hobekuntza planak.

## **3.-ESKAITZA EKONOMIKOA.....10 puntu.**

- Eskaintza ekonomikoeneri 10 puntu emango zazikio. Hortik abiatuta hiruko erregela aplikatuko da erabateko proportzionaltasun irizpideekin hurrengo puntuazioak zehazteko. Honela, Ari 10 puntu badagozkio Bri X puntu dagozkio eta X izango da A bider 10 zati B.

## **4. HOBETZEKO PROPOSAMENAK.....10 puntu.**

- Enpresaren memoria teknikoan jasotako proposamenak, aurreko ataletan jasota ez daudenak, eta zerbitzuaren prestaziora hobekuntzak ekar ditzaketenak.

### **17.- KONTRATUAREN ADJUDIKAZIOA:**

Administrazioak aldizka kontratua proposamen abantailatsuenari adjudikatzeke ahalmena izango du, horretarako aurreko baldintzan ezarritako irizpideak aplikatuta, eta bere balio ekonomikoari nahitaez kasu egin behar ez diola, edo bestela, lehiaketa eman gabe jotzeko ahalmena, azken kasu honetan nolatan ere, adjudikatzeke irizpideei erreferentzia eginda bere suntsiarazpena arrazoituko du.

### **18.- KONTRATUA FORMALIZATU AURREKO BETEBEHARRAK ETA KONTRATUA FORMALIZATZEKO AGIRIA:**

Kontratua behin betiko izaeraz esleitutakoan, esleipendunak, Korporazioak adierazten duen datan, kontratua formalizatzeko agiri egokia izenpetu behar du. Nahikoa izango da berau administrazio agirian formalizatzea. Adjudikaziodunak eskritura publikoan formalizatu nahi izanez gero, horren gastuak bere kontura joango dira, eta Udal honi eskrituraren lehen kopia, kopia baimendua eta kopia bakuna eman beharko dizkio 15 eguneko epearen barruan, berau ematen dutenetik.

Kontratistari egotzi ahal zaizkion kausengatik kontratua formalizatu ezean, Udalak berau suntsiaraztea erabaki ahal izango du, aurretik interesdunari entzunaldia eginda, eta kalte-galeren ordaina emanda.

### **19.- KONTRATUA BURUTZEA:**

1.- Lanak ezin izango dituzte hasi, harik eta, kontratistak behin betiko fidantza emanda duela, kontratua sinatzen duen edo, hori ezean, lanari ekiteko baimena helarazten dioten arte.

2.- Kontratistak kontratua berau egiteko finkatutako epearen barruan bete behar du.

3.- Kontratua Kontratistaren arrisku eta menturara gauzatuko da, Sektore Publikoko kontratuen Legearen testu bateginaren 215. artikuluekin bat etorritik. Eta kontzeptu honen barruan hitzarmen



kolektiboen ondorioz egin beharreko soldata-gehikuntzak ere sartuko dira, azken hauek kontratuaren administrazio izaeratik kanpoko kontuak baitira.

4.- Zerbitzua programara atxikita dauden langileek egindako grebagatik eten edo geldiaraztea ez da ezinbesteko kausa, eta horrek ez du kontratista salbuesten kontratuaren bere betebeharrak betetzetik.

5.- Grebaren kasuetan gutxieneko zerbitzuak ezartzea alkatearen esku bakarrik egongo da, aldez aurretik, egoki iritziz gero, Eusko Jaurlaritzari kontsulta eginda, bide batez, aipatutako gutxieneko zerbitzu horiek bermatzeko beharrezko diren neurriak ere hartuko lituzkete.

6.- Kontratua burutzerakoan, plegu honetan jasota dauden baldintzei kasu egingo diete eta, beharrezko bada, baita baldintza teknikoan pleguarekin batera dauden zehaztapen teknikoei ere, guztia Udalaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolpean; honek ahalmen hauek idatziz zein ahoz burutuko ditu, gizarte zerbitzuen Departamenduko langileen bidez.

7.- Kontratatari edo bere mendeko pertsonari egotzi ahal zaizkien ekintza edo omisioengatik kontratua behar bezala joan dadin konprometitzen denean, Udalak beharrezko jotzen dituen neurriak har ditzaten eska dezake kontratua behar bezala joan dadin lortzeko.

#### **20.- HARRERA ETA BERMEAREN ALDIA:**

Gehienez ere, 30 eguneko epearen barruan, kontratuaren xede den prestazioa bukatzen denetik, berau hartzeko egintza formal eta positiboa gertatuko da.

Halaber, URTE BETEKO epea ere ezartzen da, harrera formalaren egunetik aurrera zenbatuta, berau garantiazat ezartzen da Administrazio Publikoaren Legearen Testu Bat Eginean eta aipatutako Legearen Araudi Orokorren aurreikusitako ondorioetarako.

Bermearen aldiaren zehar, kontratatari egindako lan edo prestazioetan ager daitezkeen akats edo okerren gaineko erantzukizuna izango du.

Aipatutako epea igarotakoan, Udalak eragozpenak jarri ez dituela, kontratistaren erantzukizuna bukatuko da.

#### **21.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEA :**

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 223. artikuluan aurreikusitakoak izango dira kontratua suntsiarazteko arrazoiak.

Zerbitzua edozein kausagatik, langileen greba barne, guztiz geldiarazi edo etetea, bai eta greba kasuan erabakitako gutxieneko zerbitzuak ez betetzea edo gaizki egitea ere, kontratua suntsiarazteko kausak ere izango dira.

#### **22.- SALNEURRIEN BERRIKUSPENA:**

Kontratu honen prezioak berraztertu ahal izango dira, sinatu zenetik bi urte igarotakoan, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 89tik 94 arteko artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Berraztertzea dagokion edo ez, eta kasu horretan aplikatu daitezkeen prozedura eta indize espezifikoak, arauz onartutakoaren artean kontratu honetako kostuen eboluzioa egokien islatzen dutenak izango dira.

Prezioen berrazterketa onartzea dagokion unean berrazterketa hori egiteko dauden kasuak onartu barik egonez gero, ez dira prezioak berrikusiko.

#### **23.- ZEHAPEN ARAUBIDEA**

##### **1.-Arau-haustekak:**

Kontratatik kontratua burutzean egiten dituen arau-hausteak oso larro, larri eta arintzat hartu ahal izango dira.

#### 1.1.- Oso larriak:

- a) Zerbitzuen prestazioari adierazitako epearen barruan ez ekitea.
- b) Zerbitzua geldiarazi edo guztiz etetea.
- c) Gobernuak ezarritako gutxieneko zerbitzuak ez betetzea edo gaizki betetzea greba dagoenean.
- d) Zerbitzuen prestazioa, argi eta garbi, okerra edo irregularra izatea, ezarritako baldintzak betetzen ez dituztela eta horiek egitean atzerapen sistematikoa dutela.
- e) Lan, Segurtasun eta Higiene eta Gizarte Segurantzako betebeharrak ez betetzea programara atxikitako langileekin, hauek kontratistaren kontura eta mendea egonik.
- f) Kontratatik negoziazio kolektiboaren ondorioz ateratako betebeharrak betetzeari uko egitea edota berau egitearen aurka agertzea.
- g) Kontratutako zerbitzua laga, berrakuran eman, eskualdatu, edo azpikontratzea, edozein modalitate edo titulupean Korporazioak aurretik baimen adierazia eman gabe.
- h) Baldintza Teknikoen Pleguaren 4-C puntuan eskatutako informazio dokumentatua aurkezteko beharra ez betetzea.
- i) Bi hutsegite larri egitea.

#### 1.2.: Larriak.

- a) Zerbitzuak eskaintzerakoan atzerapenak etengabe eta ez-sistematikoki izatea.
- b) Programaren langileek establezimenduen langileekin zuzenak ez diren tratua direla-eta izan ohi dituzten gorabeherak.
- c) Programaren aldaketa edo hobekuntzei buruzko Udal aginduak ez betetzea, aldaketa horiek kontratistari gastu gehiago ez dakarkiotenean.
- d) Baldintzen Plegu honetan kontratistarentzat ezarrita dauden betebeharrak ez betetzea ekarrita ere, oso larriko kalifikazioa merezi ez duten eta bere izaeratik arintzat hartu behar ez diren guztiak.
- e) Bi hutsegite arin burutzea.

#### 1.3.: Arinak.

- a) Zerbitzuak etetea soilik.
- b) Atzerapena lansariak ematerakoan.
- c) Programa eskaintzerakoan, okerrik egitea, ez errepikatua.

### **2.-Zehapenak.**

Kontrata erantzule zibila eta administratiboki izango da Udalaren aurrean bere langileek burutzen dituzten hutsegiteengatik, eta programa gaizki eskaintzeagatik edo iruzurreratik edo erruagatik hirugarrenei sortutako kate guztien ordaina ematera behartuta egongo da, horiek ondasun pertsonaletan direla edota instalazioetan, hori guztia ezarri dakizkikeen zehapenak alde batera utzi gabe.

- a) Hutsegite oso larriek 601,01 eurotik behin betiko fidantzaren zenbatekoa arteko zigorra jasoko dute, kontratua suntsiaraztea ere ekar dezaketela.
- b) Hutsegite larriek 150,25 euro eta 601,01 euro bitarteko zigorra jaso ahal izango dute.
- c) Hutsegite arinek, nolana ere, ohartarazpenaren bidezko zigorra jasoko dute, 150,25 euro arteko isunak ere ezarri ahal direla.

### **3.-Zehapenak aplikatzeko prozedura.**

Zehapenak aplikatzeko orduan, kontratistari proposamenaren berri emango zaio, honek 10 eguneko epearen barruan egoki irizten diona alega dezan bere interesen alde. Aipatutako zehapen hori exekutiboa izango da alkateak onetsi ondoren, horrela, bere zenbatekoa faktura egokitik kendu ahal izango dute, kontratua suntsiarazten bada izan ezik, orduak berau kontratazioako organoak xedatuko du.

### **24.- LEGE BEREZIAK:**

Adjudikaziodunak lan eta zerga arloan indarrean dauden arauak nahitaez bete beharko ditu eta, espainiarrek ez diren ondasunak edo zerbitzuak behar izatekotan, hauek inportatzeko arloan indarrean dagoen legeria ere bete beharko du.

## **25.- JURISDIKZIOA ETA ESKUMENA:**

Kontratuaren ondorioz sortutako auziak, beti, Udalak bere egoitza duen tokian jurisdikzioa duten Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioko Auzitegien mende daudela ulertuko da, hori horrela izanda ere, alderdiek erabaki dezakete bere auziak arbitrajearen mende jartzea, indarreko legerian ezarritakoarekin bat etorritz.

### **I. ERANSKINA**

#### **Proposamen-eredua**

\_\_\_\_\_ jn./and.ak,  
\_\_\_\_\_ ko bizilagunak, \_\_\_\_\_ (e)an  
helbidea duenak, \_\_\_\_\_ telefono-zenbakidunak, (egonez gero,  
\_\_\_\_\_ fax zenbakia duenak, eta \_\_\_\_\_ Nortasun Agiri Nazionala  
duenak, bere gaitasun juridiko osoa eta jardutekoa duela, bere izenean (edo  
\_\_\_\_\_(a)ren \_\_\_\_\_ ordezkaritzan,  
\_\_\_\_\_(e)an helbidea duela, -  
\_\_\_\_\_ kale -edo plaza, etab.- eta \_\_\_\_\_  
I.F.K./N.A.N. zenbakia, Pleguaren eta **Etxez Etxeko Laguntzako** programa prozedura irekian lehiaketa  
bidez kontratatzean agindu behar duten gainerako baldintza fakultatiboen jakitun, **HONAKOA**  
**ADIERAZTEN DU:**

I.-Administrazioko klausula Partikularren Plegua eta espedientean jasotako gainerako dokumentuak ezagutzen dituela, eta hauek guztiak espresuki onartu eta ontzat hartzen dituela.

II.- Bere ardurapean adierazten duela enpresa lizitatuak gaitasun juridikoak eta bitarteko nahikoak dituela kontratuaren xedea betetzeko, eta ez dagoela erorita indarreko legerian adierazitako ezintasun edo debekuaren kasuetan.

III.- Lan, zerga eta Gizarte Segurantzako arloan legialatu edo araupetutakoa betetzera bere burua behartzen duela.

IV.- esleipendun izanez gero esandako lanak, onartutako Baldintza Orrietan xedatutako betekizun eta baldintzak eta espedientean zehaztutako baldintza teknikoak betez egingo dituela.

V.- esandako guztiarekin bat etorritz, lehenengo puntuan adierazten diren lanak egiteko konpromisoa hartzen duela Baldintza Orrien 4, klausulari jarraituz:

Arreta ordua: \_\_\_\_\_ euro gehi BEZri dagokion \_\_\_\_\_ euro.

Lekua, eguna eta sinadura.

LIZITATZAILEA.

## II. ERANSKINA

Esleipendunak jarraian ageri diren langileak subrogatuko ditu.

IZEN ABIZENAK	ANTZINATASUNA	KONTRATO MOTA	OKUPAZIOAREN %
A.I.P.	09/10/2007	401	10,5%
A.E.Z.B.	22/01/2001	401	85,5%
A.H.H.	16/11/2000	401	BAJA POR ENFERMEDAD
E.M.F.	17/10/2000	401	48,68%
E.E.G.	26/03/2001	100	50%
I.E.B.	06/11/2001	501	65,7%
J.H.	17/10/2000	200	100%
L.V.	01/10/2008	200	57,8%
M.J.R.R.	10/02/2005	100	59,21%
M.C.P.H.	18/10/2005	401	61,8%
M.S.S.	09/03/2009	501	100%
N.O.	04/12/2009	510	92,10%
P.C.	22/12/2010	501	21%
P.P.	23/06/2009	501	100%
T.M.B.	17/10/2000	401	40,78%
U.M.	01/09/2009	501	63,15%
C.J.	07/02/2014	510	39,47%
M.A.	01/09/2015	510	100 SUSTITUCION POR BAJA ENFERMEDAD+VACACIONES
M.M.	04/03/2016	501	10,52%

**Langile hauei Gizadi Elkartearen hitzarmen kolektiboa aplikatzen zaie, GAOn argitaratua, 2013ko urriaren 29an**

**PLIEGO DE CONDICIONES ECONÓMICO-ADMINISTRATIVAS PARTICULARES QUE HAN DE REGIR EN LA ADJUDICACION DEL PROGRAMA DE AYUDA DOMICILIARIA DEL AYUNTAMIENTO DE ARETXABALETA**

**CLÁUSULAS**

**1ª.- RÉGIMEN JURÍDICO:**

1.- El presente contrato, considerado como contrato de servicios, según lo dispuesto en el artículo 10 del Real Decreto legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, de contratos del sector Público, se regirá por los principios comunes a la contratación de las Administraciones Públicas y, en cualquier caso, por los del Derecho de las Comunidades Europeas relativos a la contratación administrativa.

Conforme a lo establecido en el párrafo anterior, el contrato se regirá:

1º.-Por el presente Pliego de Cláusulas Económico- Administrativas Particulares y por el pliego de condiciones técnicas.

2º.-Por las normas sobre contratación contenidas en las disposiciones legales y reglamentarias, de Régimen Local y de Contratos de las Administraciones Públicas vigentes al celebrarse la licitación y el contrato, y durante el desarrollo de ambos.

- En particular serán de aplicación el Real Decreto legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, y el Real Decreto 817/2009, de 8 de mayo, por el que se desarrolla parcialmente la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, asimismo el Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.

3º.- Por el Decreto 155/2001, de 30 de Julio de determinación de funciones en materia de servicios sociales.

4º.- Por las demás normas de Derecho Administrativo.

2.- Las normas de Derecho Privado serán aplicables como Derecho supletorio para resolver las cuestiones a que puedan dar lugar la interpretación, efectos, cumplimiento y extinción del contrato, que no puedan ser deducidas por las disposiciones citadas en el párrafo anterior; en todo caso, la aplicación de las normas de Derecho Privado no podrá hacerse con olvido de las prerrogativas de la Administración.

Codificación de la nomenclatura CPV: 85312000-9

Con el fin de asegurar la transparencia y el acceso público a la información relativa a su actividad contractual, y sin perjuicio de la utilización de otros medios de publicidad, este Ayuntamiento cuenta con el Perfil de Contratante al que se tendrá acceso según las especificaciones que se regulan en la página web siguiente: [www.aretxabaleta.eus](http://www.aretxabaleta.eus)

**2ª.- OBJETO DEL CONTRATO:**

El objeto directo del contrato que se adjudique por procedimiento abierto es la realización del Programa de Ayuda a domicilio, con arreglo al presupuesto y a las condiciones facultativas establecidas en el Pliego de Condiciones Técnicas. No obstante, los licitadores podrán aportar otras soluciones técnicas que consideren más adecuadas al objeto del contrato, que, de ser aceptadas por la Administración, modificarán, en aquello en que pudieran estar en contradicción, las condiciones facultativas inicialmente fijadas en el expediente.

La empresa adjudicataria deberá subrogarse como empleador en los contratos de trabajos de las trabajadoras cuyas características figuran en el anexo de este pliego.

### **3ª.- DURACIÓN DEL CONTRATO:**

La prestación de los servicios objeto del programa tendrá inicio el 1 de enero de 2017 y finalizará el 31 de diciembre de 2021. No obstante, mediante acuerdo expreso del órgano competente, podrá prorrogarse el contrato por periodos anuales hasta un máximo total de 2 años, siempre que no medie denuncia con una antelación mínima de tres meses.

En cualquier caso, y si el Ayuntamiento lo considera conveniente, el adjudicatario tendrá la obligación de continuar prestando el servicio hasta el inicio del nuevo contrato que oportunamente se adjudique, siempre por un plazo máximo de seis meses desde la fecha dispuesta para la finalización del contrato.

### **4ª.- PRESUPUESTO-TIPO DE LICITACIÓN:**

Se establecen el siguiente tipo de licitación, que los licitadores podrán mejorar a la baja en sus ofertas, consignando una cantidad concreta y determinada:

- Hora atención: 16,19 euros más 3,40 euros de IVA

